


Munduko onenak Zurriolan

Astebukaera honetan Open Zone ize-neko kirol ekitaldia jokatu da Zurriolan. Bertan munduko surflari eta patinatzaile onenak ariko dira, Donostiako frogak munduko zirkuitorako balio baitute.

Raul Perez

hilaren 7tik 9ra Open Zonen laugarren edizioa egingo da Zurriolan. Kirol ekitaldi honetan surfa, skatea eta boleia uztartzen dira. Aurtengoan surf txapelketako emaitzek Munduko zirkuitorako balioa dute. Ondorioz, Longboard estiloko munduko surflari onenak Donostian izango dira. Surflari trebe hauekin batera Kepa Alvarez donostiarra ariko da. Kepa 15. postuan dago Munduko Longboard Txapelketan, eta ilusio handiz ekingo dio etxeko erronka honi.

Surfa ikuskizun honen ardatza izanik, antolatzaileek ahalegin nabarmena egin dute nazioarteko izarrek gazteei gerturatzeko. Horren adibide dira uztailaren 10etik 13ra emango diren surf ikastaroak. Ikastarootan, zortzi



Aurtengoan surf txapelketako emaitzek Munduko zirkuitorako balioa dute.

eta hemezortzi urte bitarteko 50 gaztek Cody Graig, Jay Moriarti eta Richard Smith kaliforniarrekin olatuen gainean ibiltzeko aukera izango dute.

Skatean ere berrikuntzan


Uztailaren 8an skatearen txanda iritsiko da. Estreinako aldiz, Nazioarteko Zirkuitoa Europara dator eta Zurriolan kirol honetako izarrik handienak lehiatuko dira. Lehiaketa garrantzitsua da, eta horregatik donostiar eta estatubatuar

Antolakuntzak skate pista berria eraiki du Zurriolan

zurginek eginiko plataforma berezia jarri da Zurriolan. Bestalde, donostiarren parte hartzea bultzatzearen, boleibol txapelketa egingo da. Lau lagunez osatutako 50 bat talde mixto ariko dira garai-penaren bila.

Julen Castellanos txapeliduna Elgetan

Julen Castellanos pilotari altzatarrak Elgetako afizionatu mailako txapelketa irabazi zuen joan den igandean. Castellanos Mendiluze hartu zuen mendean. Intxaurren Pilotela Elkarte mutiak finalurrekoetan galdu egin zuen, baina Saralegi finalistaren lesioak finala jokatzeko aukera eman zion. Pilotari gazteak ospe handiko txapelketa eskuratu du. Izan ere, Beloki, Nagore eta Olaizolak berak Elgetan txapela jantzi zuten profesionaletaratu jantzi egin aurretik.



Sukalde altzariak

EGURRA

Donostia

Erakusketa: San Frantzisko 12 • Tel.: (943) 281098 • DONOSTIA
 Fabrikazioa: Sukalde Altzariak • IBARRA • Tel.: (943) 691273 • ZIZURKIL



Marino Tabuyo, 6
 Tel.: (943) 32 15 94
 DONOSTIA

Laskorain, 7
 Tel.: (943) 65 49 16
 Faxe: (943) 65 17 27
 TOLOSA